

Liburutegiak egun berezia dute gaur

Jaurlaritzak liburutegien zerbitzua hedatzeko kanpaina bultzatzen du

Maite Zabalondo

Eskualdeko zenbait liburutegirentzat egun berezia da gaur. Hain zuzen, Liburutegien eguna ospatzen dutelako.

Eusko Jaurlaritzak liburutegien zerbitzua hedatzeko bultzatutako Irakurri 2007 kanpainaren baitan ospatuko dute gaurko eguna ere.

Bermeoko liburutegian, esaterako, Eusko Jaurlaritzak emandako zenbait opari emango dizkiete liburutegia ezagutzera lagunen bat eramaten duten ohiko erabiltzaileei eta horien lagunei. Notak hartzeko blok-ak boligrafoagaz eta antzeko oparitxoak izango dira.

Lehenengo aldiz liburutegia bisitatzen dutenek eta liburutegiko txartela egiten dutenek ere oparia izango dute.

'Liburutegiko menua'

Bestalde, Busturiko liburutegiak ekimen berezia antolatu du, Liburutegiko menua izenekoa. Pertsona nagusientzat egokitutako jarduera izango da, Busturiko Hirugarren Adineko Elkartearekin batera burutuko duena.

Marije Lizarte Busturiko liburutegiko arduradunaren esanetan, janari errezeta bat idatzi eta liburutegira ekartzeko eskatu diegu. Janari errezeta bat idatzi eta liburutegira ekartzea liburutetara erraz eta egoki hurbiltzeko modu bat da adin horretako gizon zein emakumeentzat.

Errezetekin datozenean une egokia izan daiteke sukaldaritza, osasuna eta janariari buruzko liburu bildumen inguruan eurekin mintzatzeko, azaldu du liburutegiko arduradunak.

Bildutako errezeta guztiak koadernatu egingo dituzte, denen artean sukaldaritza liburu berri bat sortuz.

Beste liburute batzuetako arduradunekin hitz egin dugu eta horiek ez dute gaurko egunerako ezer berezirik antolatu. Hala ere, kanpainaren baitan sartuta daude batzuk